



Andoaindarren elkartasuna Hodei Olaizola gazteari

Hodei Olaizolak istripua izan zuen Hernanin iaz, eta eroriko txar baten ondorioz gurpildun aulki batean ibili beharra dauka.

Gazteak bizitza berrira egokitu behar izan du; gogor ekin dio, gorputza indarberritzeko asmoz. Basteron urriko azken asteburuan haren aldeko gala antolatu zuten.

San Juan Bataiatzailea zahar egoitzako langileek eta Zine eta Bideo Eskolako ikasleek hartu zuten bere gain Basteroko ekitaldia antolatzeko ardura. Nahiz eta Hodei Errenteriako mutila izan, Isabel Valencia ama Andoaingo alaba da, eta bertako zahar egoitzan egiten du lan.

Castilla-La Manchako telebistak Toledoko egoitzan egindako erreportajea ikusiz ekin zitzaion galari. Bertan, Hodeiren aitak aitortzen du Hodeiri eta familiari erabat aldatu zaie-la bizimodua. Ekitaldiaren amaieran, berriz, Isabel Valencia Hodeiren amak hartu zuen hitza, familiaren izenean esker ona adierazteko. Zerrenda lu-



Hodei Olaizola eta atzean, ezkerretik lehena, Isabel Valencia haren ama.

zea aipatu nahi izan zuen, inor ahaztu gabe: lehenengo eta behin, ekitaldira bertaratu ziren herritar guztiak, eta ondoren, Basteroko musika eta dantza taldeak, Andoaingo Udala eta bertako langileak, Andoaingo tabernari eta dendariak, eta nola ez, Juan Bautista Bataiatzailearen zahar egoitza eta Zine eta Bide eskola. Modu berezian, Ainhoa Aiertzeta eta Izaskun Mujika izan zituen gogoan, buru-belarri inplikatu baitira egitasmoan.

Harridura agertu zuen Isabel Valenciak, Hodei Andoaingoa ez izan arren bertako herritarrek elkartasun handia erakutsi dutelako. Hunkituta agertu zen eskerrak emateko garaian.

MUSIKA ETA DANTZA SAIOA
Andoaingo hainbat musika eta dantza taldek parte hartu zuten Basteroko galan: Urki, Zuenako sevillana taldea, Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagola tango dantzariak, Pame-Zumba, Lorratzak, Logo Klapp...

Animozko hitzekin beste bideo bat proiektatu zen pantailan; hala nola, Real Sociedadeko jokalaria, Julen Aginagalde eskubaloiko jokalaria, Xabier Usabiaga ETBko aurkezlea...

Hodei Bidasoa eskubaloitaldeko jokalaria izan zen, eta bertako ordezkariak ere izan ziren galan, hain zuzen, Jose Angel Sodupe taldeko presidentea eta Hodeirekin jokatu zuten Andoni Izagirre eta Mikel Mindegia gazteak.

Ikusleen artean zozketa ugari egin zen eta Rioko paraolimpikoetan domina lortu duen Amador Granadosek eta Ana Carrere Andoaingo alkateak banatu zituzten sariak.

BERTSO HUNKIGARRIAK

Aitor Mendiluze eta Asier Sarasuak bertso sorta ederra abestu zuten. Horra, Aitorren azkena: *Denak gogoan hartzen zaituzte, Hodei, ama eta aita. Etxeko eta lagun guztiak hemen elkarri jarraika. Gauero etzan behar delako, goizean itzarri nahita. Argitzen egun bakoitza aukera berri bat baita.*

Argazkiak, bideoak: Aiurri.eus

Materia organikoa biltzeko kanpaina



Tolosaldea Mankomunitateko ordezkariak pozik daude andoaindarrak ematen ari diren erantzunarekin. Bilketaren gakoak, elkarrizketa bidez.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Arregi bikain nazioartean



Asier Arregi Europako ziklokross txapelketan 22. postuan sailkatu zen. Postu bikaina Frantziako Pontchateau jokaturako lasterketan lortutakoa.

Mikel Goenaga gunea

Larunbat honetan, goizeko 11:30ean hasita, Mikel Goenaga gunearen irekiera ekitaldia egingo dute Sorabillan. Arrasto sakona utzi zuen apaizak andoaindarren artean, eta hura gogoan hartzeko aukera izango da orain.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

Atzegizaleak biltzeko kanpaina Gipuzkoan eta eskualdean barrena

Atzegik #KaleAtzegizale izenburupean aurtengo sentsibilizazio kanpaina martxan jarri du. Bereziki, jarrera positiboak orokortu eta ingurune inklusiboagoa lortu nahi ditu.

Atzegizaleen keinu txikiak alde "handia" suposa dezakete adimen urritasuna duten pertsonen egunerokoan. Horren garrantzia azpimarratu zuen Aloña Agirre Atzegiko kideak, Beterrri-Buruntzako kanpainaren aurkezpen agerraldian.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]



Beterrri-Buruntzako kanpainaren aurkezpen agerraldia egin zuten aurreko astean.

Bullying-a hizpide



Tailerra antolatu zuten Baketik-en eskutik, Salesiar ikastetxean.

DBHko ikasleek bullying-a hizpide izan zuten, Baketik-en eskutik. Tailerrak hiru zati zituen: antzerkia, foruma eta tailerra. Ikastetxeko arabera, "azpimarratze-

koa da ikasleek izandako jarrrera, izan ere, gomendio eta informazio asko jasotzeaz gain, gaiaren inguruan interes handia azaldu baitzuten".

Haitiko hondamendiaren kalteak arintzeko laguntza

Urnietako Udalak Gurutze Gorriari dirulaguntza bideratu dio, Matthew urakanak Haitin eragindako hondamendiaren kalteak arintzeko lagungarri izan dadin. Guru-

tze Gorriak, esaterako, plasztikozko oihalak, eltxo-sareak eta bidoiak bidaliko ditu. Udalaren diru-laguntza baliabide horiek Haitira bidaltzeko erabiliko da.

2017rako tasak eta zergak

Azaroaren 3an, ostegunarekin, Udalaren ez ohiko osoko bilkura deitu dute.

Nagusiki, 2017ko ordenantza fiskalak (tasak eta zergak) onartzeko.

Adierazpen instituzionala

Urriaren 9an Marokoko gobernuak Mendebaldeko Saharako eremuan sartzeko aukera ukatu zion giza eskubideen behatzaileen euskal ordezkari bati. Ukazioaren aurrean Urnietako Udalak adierazpena egin du:

- 1 Sarbidea ukatzeak agerian uzten du ez dagoela biktimen eskubideak aitortzeko interesik.
- 2 Berrito ere adierazten du gu saharar herriarekiko elkartasuna.

3 Eskerrak eman nahi dizkiogu behatzaile taldeari giza eskubideen alde egiten duen lan eskuzabalagatik.

4 Horrenbestez, Marokoko Gobernuaren aurrean egin beharreko ekintza guztiei heltzeko eskatzen diegu Espainiako Gobernuari eta nazioarteko erakundeei.

5 Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketa larriak ikertzeko proiektuarekin dugun konpromisoa berresten dugu.

Eta abenduaren 2an Basteron, Iñistorra-Bazkunaren eskutik

Ereñotzun Txirritaz gozatzeko aukera berria



Arratsaldeko 19:30ean hasita, "Gabon Txirrita" ikuskizuna Ereñotzuko frontoian.

"Gabon Txirrita" ikuskizunaren itzala luzatzen ari da, duen arrakastaren seinale. Donostian eta Urnietan sarrerak agortu eta gero, Xabier Letek idatzi eta zuzendutako ikuskizunaz gozatzeko aukera berria izango da larunbat honetan Ereñotzuko frontoian.

Zentzua badu Ereñotzun egitea, bertan jaio baitzen Latze-zar baserrian. Joxe Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita"

Zentzua badu Ereñotzun egitea, Txirrita bertan jaio baitzen Latze-zar baserrian 1860ko abuztuaren 14an

1860ko abuztuaren 14an jaio zen. Gurasoak, Bautista Lujanbio Ganborena hernaniarra, eta Juana Josefa Retegi Iraola oiartzuarra izan zituen.

Datorren asteko larunbatean, Ereñotzuko frontoian "Gabon Txirrita" ikuskizunaren saio berria eskainiko dute. Arratsaldeko 19:30ean hasita, sarrerak salgai daude Saroben, Hernaniko Biterin eta Ereñotzuko auzo udaleko egoitzan 7 euroko prezioan.

Hernanikoa ikusi gabe gertatzen direnek aukera berria izango dute Andoainen, Iñistorra-Bazkunaren eskutik.

Langabetuentzako ikastaroak, praktikak egiteko aukerarekin

Ikastaroak langabetuentzat

Salesiar Ikastetxeak azaroan zehar langabetuentzako ikastaroak antolatuko ditu, ikasleek enpresatan praktikak egiteko aukerarekin.

Ikastaroak hauexek dira:

1. **Sistema domotikoak:** 350 ordu.
2. **Automatizazio sistema-industrialak:** 390 ordu.
3. **Multimedia argitalpen produktua:** 490 ordu.

Ikastetxeko arduradunek adierazi bezala, azken plazarak libre daude aipatu hiru ikastaro horietan.

Informazio gehiago 943 551 789 telefono zenbakian.

Azaroaren 15ean eta 16an Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean

Ikastaroak ekintzaileentzat

"Zure enpresa nola sortu eta kudeatu" ikastaroa antolatuko dute Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean, datorren azaroaren 15 eta 16an.

Beterri-Buruntzako Udalek sustaturikoa da eta goizez

nahiz arratsaldez parte hartzeko aukera izango da:

- Goizez: 09:00-13:00.
- Arratsaldez: 15:00- 19:00.

Ikastaroan izena emateko epea datorren azaroaren 11n amaituko da.

IZEN-EMATEA:

Informazio gehiago jasotzeko:

- 943 304 221.
- Nerea Yurrebaso.
- ekinean@andoain.eus.
- Lanbide, eskualdeko bulegoak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Datorren azaroaren 12an irteera Bizkaia aldera, Zanpatuzekin

Mendi irteera Gorbeiarra

Urriko irteeran autobusa bete jende joan zen Beriainera, eguraldi kaskarra eduki arren. Mendi elkartearen hurrengo irteera Gorbeia mendira izango da. Datorren azaroaren 12an izango da, larunbatarekin, eta egun osoa izango da.

Pagomakurretik, Bizkaitik igotzea da asmoa, Arrabako zelaigunea eta Egriñaoko aterpean barrena gurutzeraino iristeko. Handik Araba aldera jaitsiko da taldea, Murua herriraino, jaitsiera beste toki batetik egiteko. Guztira lau ordu pasatxo dira oinez, eta gorantz gaintu beharreko desnibela 600 metro. Beherantz, aldiz, 800 baino gehiago. Irteera maila ertainekoa da. Bazkaria norberak eraman beharko du, eta eguraldia lagun, otordua Gorbeiaiko ton-torrean bertan egingo da. Eguraldia txarra bada, beherako bidean babesguneren bat topatzen den lehen tokian.

Izena emateko zerrendak Kanto, Xauxar eta Ikasmin akademian jarriko dira. Epea azaroaren 10a izango da.



Beriain aldera abiatu ziren urrian Zanpatuz elkarteko kideak. ©Jonathan Lopez

Gorbeiarra joateko izena emateko epea zabalik dago Kanto, Xauxarren eta Ikasminen datorren azaroaren 10era arte

BERROGEITA HAMAR LAGUN BERIAINERA

50 lagun baino gehiagok parte hartu zuen Beriaingo irteeran, Zanpatuz mendi elkartearekin, pasa den igandean. Irañetatik abiatu, Euskal Herriko erdigu-

ne geografikoa ezagutu zuten aurrena, eta handik Beriaingo ermitara, 1.493 metrora. Hego haizeko denboralea, egun ia guztia lainoan eta euripean egin zuten Urrietako mendizaleek.

Beriain gainean ermita barruan hartu behar izan zuten aterpe, kanpoaldean egotea ezinezkoa zelako haizea eta hotzagatik.

Handik behera, Unanun autobus barrura azkar batean igo ziren, Urrietara azkar bueltatu eta dutxa bero bat hartzeko

Kirol ikusgarriari buruzko diaporama ziklo berria



Bidaia eta esperientziak hizpide izango dituzte Urrietako ziklo berria.

Kirol ikusgarrien bidez mundua ezagutzeko beste modu bat eskaini nahi du Urrietako Udalak, Diaporamen bidez. Futbola eta saskibaloiaz harago, bestelako kirol jardueren berri eman nahi dute. Esaterako, "Slacklinea eta Transpirenaika zer diren erakutsi nahi diegu urrietarrei", adierazi zuen **David Rosco** zinegotziak.

Aurreko astean izan zen lehen saioa. **Xabier Amorrortuk** Slacklinea praktikatzeko du eta horren inguruko bizipenak azaldu zituen: "Hasiera batean soka baten gainean orekari eustea ezinezkoa iruditzen zitzaidan", aitortu zuen. Hala ere, pixkanaka parkeetan praktikatzetik hasita, altueran egitera igaro direla azaldu zuen: "Kirola da, baina niretzat terapia da. Soka gainean oinez ibiltzeko, meditazio berezi bat egin behar dugu".

DATORRENA

"Geuk ere egin dezakegu zerbait! Lesbos eta Atenasen errefuxiatuekin"

Hizlariak:

Iñaki Iraola eta Koro Gabiola. Azaroak 23, asteazkena.

19:00. Lekaio.

Koro eta Iñaki Lesbosen egonak dira errefuxiatuei laguntza eskaintzen. Han egon eta itzuli ondoren, bigarren bidaia egitea erabaki zuten, oraingo honetan Atenasera. Bidaia horietan ikusi eta bizitakoa kontatuko dute, baita bidaien prozesua, han egindako ikasketak eta bizi ikusteko beste ikusmirak ere.

ZIKLOA UDABERRIRA ARTE

Urtarrilean, "El Conquistador del Fin del Mundo" ezagutzeko aukera izango da **Amaia Puertas**, **Iñaki Lekuona** eta **Aitor Ormazabal**en eskutik.

Dantzari eta dantzazaleen topaketa, igande honetan

Aurrera Gure Ametsa dantza taldearen eskutik, igande honetan dantza nagusituko da San Juan plazan. Eguerdiko 12:00etatik 14:00ak arte, Tafallako Asociacion Martin Galdiano elkarte, Izarrako Triskari dantza taldea, Es-

cuela de danzas de San Asensio eta Hernaniko San Joan konpartsa arituko dira. Haiekin batera Urrietako Bosko Anitz txaranga eta Lourdes Iriondo musika eskolako trikitilaria arituko dira.

ODOL EMAILEEI ESKERTZA ETA OMENALDIA



KIXOTE
Santxoren zorabioa
Familia ikuskizuna



markeliñe

Azaroak 6, igandea

Sarobe AEG

17:30etan

Sarrera 3 €
(aldez aurreko salmenta urriaren 28tik aurrera).



“Pintxoka” lehiaketa

Azaroaren 4tik 6ra Pintxoka lehiaketa martxan jarriko du Salkinek Andoaingo Txitibar, Amama Klaudia, Olloki, Aterpe, Hiru eta Akerbeltz tabernetan.

Lehenago, Andoain Txartelaren erabiltzaileek urriaren 31 bitarte erosketak egiteko garaian pintxoa eta kriptza ardoa dastatzeko tiketa dohainik eskuratzeko aukera izan



zuten. Tiket hori erabilgarri izango da lehiaketa indarrean izango den asteburuan zehar.

Ordenantza fiskalak

2017ari dagozkien ordenantza fiskalak adostasun zabalarekin onartu ziren. Desadostasun bakarrak bi puntutan izan ziren:

- Urari aplikatu beharreko tasa. Sozialistek emendakina aurkeztu zuten, gutxieneko kontsumoetan beharpena proposatu,

baina gainerako alderdiek gobernu proposamenarekin bat egin zuten.

- Materia organikoaren birziklaketa. Aplikatu beharreko hobaria edo deskontua izan zen aurkakotasun handiena lortu zuena. Azkenean Gobernu taldearen proposamena onartu zen.

“Beharra daukat” kanpaina



Aurkezpen ekitaldia egin zuten Andoaingo batzar aretoan.

Urriaren 20an Andoaingo udaletxeko pleno aretoan, osasun-arazo bat dela eta komuna joateko premiaren aurrean komuna uzteko kanpaina aurkeztu zuten.

Gipuzkoa mailako Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixoen ACCU elkartearen eskaerarekin bat egin du Andoaingo Udalak. Erakundeak udal eraikinak ahalbidetuko ditu horretarako, eta herriko merkatarien artean kanpaina egiteko konpromisoa hartu du.

Gipuzkoa mailako elkarte-ko lehendakari Jone Argoitia kanpainaren xehetasunak eskaini zituen: “Gaixotasun hauek ditugunontzat beharrezkoa da. Lotsak alde batera utzita, aurpegia emateko unea dela iritzi diogu. Gure kanpainaren erabiltzaileek txartel bat edukiko dute, eta horri esker hainbat tokitako komuna erabiltzeko aukera izango dute”.

Antzeko egoeran dauden pertsonentzat txartela eskuratzeko sistema oso erraza

da. Beharradukatu.eus webgunetik inprimakia lortzen da, eta hori beteta anbulatortara joan behar da. Paper hori medikuak aztertu eta oniritzia ematen dio, eta hortik aurrera elkarteak txartela ematen dio han eta hemen erabili ahal izateko. Andoain, esaterako, gaixo horiei udal eraikin guztietan komuna erabiltzeko aukera eskainiko zaie eta laster ekimenarekin hainbat merkatarik bat egitea espero dute. Toki horietan guztietan pegatina bat agertuko da, “Beharra daukat” kanpainarekin bat egiten duela adierazten duena.

Tokien kokapena errazte aldera, erabiltzaileek APP aplikazio erraz batekin tokiak -eta komunak- aurkitu ahal izango ditu Googleko mapari esker.

Ana Carrere alkateak, Udal korporazio osoaren izenean, harrera egin eta elkartzuna adierazi zien. Andoaingoa da elkarteari babesa eskaintzen dion lehen udalerrria.

Lanak aurkezteko azaroaren 23ra bitarteko epea zabalik dago

Film laburren lehiaketaren deialdi berria

Film laburren lehiaketa ez da Andoaingo mendeurrenaren ekitaldietara mugatuko, eta iazko deialdiak aurten ere jarraipena izango du. **Ainara Rodriguez** zinegotziak lehiaketaren aurkezpenean Andoain herriak ESCIViri esker zineman lortu duen erreferentzialtasuna azpimarratu zuen. Eta horregatik, eskolarekin elkarlanean aritzeko egokitasuna defendatu zuen: “Andoain Laburrean euskara hutsean egiten den lehiaketa da. Herrian zinema eta bideo eskola izanik, guztiz proposa iruditzen zitzaigun horrelako lehiaketa martxan jartzea”.

Ainhoa Aiertza ESCIViko irakasleak parte hartzeko deia luzatu zuen, zine eta bideo eskolako hainbat ikasleek parte hartzeko duten gogoazalztearekin batera.

Kimetz Bilbao ESCIViko ikaslea da, aurtengo lehiaketako kartelaren egilea. Parte hartzeko asmoa duen ikasleetako bat da: “Iaz hasiberria nintzen eta lehiaketa batean parte hartu nuen lehen aldian izan zen. Bideozaleak parte hartzerantz animatuko nituzke”.

Aurten, 75 eta 300 euro bitarteko lau sari banatuko dituzte. Sari banaketa Basteron izango da, datorren abenduaren 1ean arratsaldeko 18:00etan hasita.



Ainara Rodriguez, Ainhoa Aiertza, Petri Romero eta Kimetz Bilbao ESCIViko ikaslea.

ANDOAIN LABURREAN 2016 | OINARRIAK

BALDINTZAK:

- 16 urtetik gorakoek eta profesional ez direnek parte har dezakete.
- Andoain bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake.

LANEN EZAUGARRIAK

- Filmaren audio elementuak euskaraz izan behar dute.
- Gaia librea den arren, film laburrean uneren batean “Aita Manuel Larramendi” izeneko liburua azaldu behar da. Zeharka zein istorioaren elementu garrantzitsu gisa. Liburuaren aleak eskuragarri daude Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan.

- Ikus-entzunezko lanen iraupena 5 eta 15 minutu artekoa izango da, kredituak barne.
- Film laburrak argitaragabeak aurkeztu behar dira jaialdi, lehiaketa edo interneten ikusi gabeak.
- Generoa librea da. Andoaingo herriari aipamena egitea hobesten da.

LANEN AURKEZPENA

- myairbridge.com bidez euskaraz zerbitzua@andoain.eus postara bidalita.
- Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztuta. Astelehenean ostiralera, 08:30etik 14:00etara.
- Oinarriak bere osotasunean: andoaindarraeuskaraz.eus.

ODOL EMAILEI ESKERTZA ETA OMENALDIA



Odol emaleen elkarteak Oianumen bildu zituen Beterri-Buruntza eta Beterri-Aiztondoko odol emaleak, haien lana eskertu eta omentzeko. Argazkian, aurtengo bazkarian omentu zituzten andoaindarrak.

MATERIA ORGANIKOAREN BILKETA ANDOAINEN

“Pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin”

Etkez etxeko kanpainaren ostean, materia organikoa sailkatzeko sistema Andoain osoan dago jarrita. Joana Garcia eta beste sei hezitzaile kanpaina aurrera eramaten aritu dira, informazio osoa eskai-

niz eta herritarren zalantzak argitzen. Pozik daude, andoaindar asko, kanpaina euren auzora iritsi arte itxaroten egon nahi ez eta Ataria bulegora informazio eske hurbildu delako.

Zer moduzkoa izan da herritarren erantzuna?

Joana Garcia. Oso ona, egia esan, harrituta gaude erantzunarekin. Hasiera batean, herritarren erdiak parte hartuko zuela espero genuen, baina muga hori pasa egin dugu eta oso pozik gaude. Oraindik ez ditugu datu zehatzak, baina erabiltzaileen parte hartzea hemendik bi hilabete barru ikusiko dugu. Izan ere, txartela hartu duten guztiek erabiltzen duten ala ez ikusi beharra dugu.

Atariaz gain, auzoz auzoko informazio puntuak jarri dituzue. Jende asko etorri al zaitzue?

J.G. Ataria bulegoan lan askorekin ibili gara; batez ere kanpainaren hasieran. Jendeak auzoz auzoko kanpainari itxaron ordez, zuzenean hona gerturatu zen informazio eta txartel eske. Hilabete ondoren, eguneko martxa hartzen hasi gara.

Bestalde, auzoetako informazio puntu horiek dagoeneko ez dauden arren, orain arte jende dezente ibili da; auzo batzuetan besteetan baina gehiago, baina orokorrean, kanpaina guztiz borobiltzeko modua izan da. Izan ere, etxetxe joan arren, jendea zalantzekin gertatu da eta puntu horiek argibideak eskatzeko erabili dituzte.

Zein izan dira herritarren zalantza nagusiak?

J.G. Sailkapenarekin lotutako zalantzak dira ia guztiak. Adibidez, pertsona bat harategiko hiru paper mota ezberdinekin gerturatu zait: paper ezkoztatua, paper plastikoduna eta paper plastiko gabea. Horrelakoetan zer egin behar duten azaltzen diegu eta dena zehatz-mehatz erakusten duen gida bat ere badugu.

Horrez gain, Udalak poltsa organikoak banatzen jarraituko duen ala ez ere jakin nahi dute. Oraindik zabor sortzaile bereziekin kanpaina egiten ari gara eta, hori guztia amaitutakoan, Udalak erabaki egin beharko du ematen jarraituko duen edo nola egingo duen.

Edukiontzi sistema herrira egokitzerakoan, ezagutza falta nabaritu al duzue?

J.G. Ez, orokorrean, jendeak badaki zer den organikoa. Hala ere, errefusara zer bota pensatzen jartzerakoan, nahasmenak sortzen dira. Pardel eta txakurren gorotzekin nahasten dira asko. Organi-



Joana Garcia eta beste sei hezitzaile kanpaina aurrera eramaten aritu dira Andoainen.

kora zer bota behar den erakusten diegu: janari hondakinak, olio zaitutako sukaldako papera, moztutako landareak... Sailkatu ezin duten hori, errefusatu izaten da normalean.

Zein da gaizki birziklatzeagatik sor daitekeen ondorioa?

J.G. %5eko hutsegite tartea dugu, hortik aurrera, birziklatzea ezinezkoa delako. Beste herrietako kasuak ikusita, arazo handiena herritarrek organikoa plastikozko poltsetan botatzen dutela da. Poltsa hori ez da egokia, eta ondorioz, poltsa asko badaude, ezin da organikoa bezala definitu. Oso zorrotzak izan behar

“Arazo handiena herritarrek organikoa plastikozko poltsetan botatzen dutela da. Poltsa hori ez da egokia, eta ondorioz, poltsa asko badaude, ezin da organikoa bezala definitu”

dugu horretan eta poltsa konpostagarrak izan behar dutela azpimarratu behar da.

Organiko asko sortzen duten komertzioei zein abantaila eskaini diezue?

J.G. 10 litroko ontzi domestiko baten ordez, 40 litroko ontzia eskaini diegu. Hortik aurrerako edukiontziak handiegia dira zaborra kaleko ontzietara botatzeko eta, atez ateko zerbitzurik ez dutenez, tamaina hori da eskaini dezakegun handiena. Udala poltsa horien kargu egingo da.

Horrez gain, tabernariei beira birziklatzeko sistema berri bat eskaini diegu. Edukiontzi berde berriek mekanismo berri bat dute, botillak banan-banan hustu ordez, 120 litroko ontzi bat mekanismoan jarri eta dena batera botatzen duena. Beraientzat aurrerapen handia da azkarago egin dezaketelako. Dagoeneko batzuk eskatu dute eta laster egingo da banaketa.

Noiz arte egongo zarete informazioa ematen?

J.G. Guztia ondo ezarri arte. Hilabete batzuk pasako dira; izan ere, organikoaz gain, kartoi komertziala ere sailkatu nahi dugu. Kartoi asko sortzen duten komertzioek ez dugu paperontzira botatzerik nahi, kartoiaren eta paperaren prezioa ezberdina delako eta toki ezberdinetara eramaten delako. Igandeetan izan ezik, egunero kartoi komertzialaren bilketa egingo da arratsaldeko 20:00etan. Horretarako, komertzioek kartoi edukiontzien ondoan utzi beharko dute.

“Lan askorekin ibili gara. Jendea, auzoz auzoko kanpainari itxaron ordez, zuzenean Ataria bulegora gerturatu baita informazio eske”



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

Atzegizaleak biltzeko kanpaina abiatu dute



Mikel semea eta Eugenio aita andoaindarrak, Atzegiren afitxak eskuan hartuta.

[AZALETIK DATOR]

“Denontzat da garrantzitsua inguruko jendearen trataera gurekiko, eta atzegizaleen keinu txiki horiek eragin handia dute adimen desgaitasuna dutenen bizitzan. Horixe bera da aurtengo kanpainarekin azpimarratu nahi izan duguna”, adierazi zuen Aloña Agirrek.

“Gure helburua kaleak atzegizale bihurtzea da”, gaineratu zuen. Atzegik horrelako jarrerak orokortu nahi ditu, adimen desgaitasuna duten pertsonen egunerokotasuna errazago egiten dutenei eskerrak emanez. Hala, Atzegiko kideek eskerrak eman zizkieten agerrialdian bertan atzegizale horiei.

Udalek “pixkanaka” berdintasuna lortzeko pausoak emateko eta beregain dituen betebeharrekin aurrera jarraitzeko hitza eman zuen Hernaniko alkateak: “Sentsibilizazio lanaz gain, Udalaren betebeharra da herria Atzegizale bihurtzea, herri inklusiboa izatea eta aurtengo #KaleAtzegizale leloarekin bat eginez, Hernaniko

kaleak denentzako kaleak izatea, guztiok baldintza berak izan ditzagun”. Eskualdeko udalek ere ekimenarekin bat egin dute.

KANPAINAREN NONDIK NORAKOAK

Laura eta Ander dira aurtengo kanpainaren protagonista nagusiak. Kartelean edota bideoetan, beraien eguneroko jarduera arruntetan ikus daitezke: kiroldegian, ilea-paindegian... Denera, zortzi mila kartel jarriko dituzte Gipuzkoa osoan zehar.

Horrez gain, eskuorriak eta txapak banatuko dira adimen desgaitasuna duten pertsonen eta hauen senideek inguruan dituzten atzegizaleei beraien jarrera azpimarratu eta esker ona adierazteko.

Atzegizaleak ikusgai egiteko, gainera, urte osoan zehar Atzegiko kideek beraiekin argazkiak aterako dituzte marko baten laguntzaz, eta argazkiak webgunean eta sare sozialetan ikusgai egongo dira.

Informazio gehiago: atzezi.org/kaleatzegizale

Bildutako botikak iritsi dira Saharako kanpalekuetara

Urrian zehar Andoaingo farmazietan botikak biltzeko kanpaina egin ostean, Hurria-Sahara elkarteak 85 kiloko pisua zuten kurtzak bidali zituen Saharako kanpalekuetara. Aurreko asteburuan jakinarazi zuten, botikak iritsi dira Afrikako desertura. Proba modura argazkia bidali zuten handik.



Igande honetan 10:30etik aurrera Esmelat enpresaren parean

Motor hotsak Erratzun

Xoxoka Motor kirol klubak irailean auto klasikoaren lehen topaketa egin ondoren, igande honetarako lehen slalom proba antolatu du. Elkarre berriko kideek jarduerak antolatzeari indartsu ekin diete, eta igande honeta-

koa ikusgarritasun handikoa izango da. Ibilbide itxian, slalom proban parte hartzen duten gidariek konoz markatutako zirkuitua osatu beharko dute. Abiadura eta trebezia, proba bien konbinaketa ondoen egi-

ten duenak irabaziko du. Motor zaletuek hitzordua dute Erratzun, igande honetan 10:30ean hasita. Esmelat enpresaren parean dagoen aparkaleku handian izango da. Altradi enpresak babestuko du proba.

Lasartetik Behobiara

Andoain

1	Asier Etxezarreta	00:35:07
2	Jaime Real	00:38:57
3	Mikel Eguren	00:39:05
4	Peio Alkorta	00:39:28
5	Pedro De Godos	00:41:10
6	Javi Menta	00:41:15
7	Martin Askarai	00:41:56
8	Iñaki Blanco	00:42:20
9	Aritz Mugica	00:42:57
10	Iker Mujika	00:43:19
11	Ernesto Alvarez	00:44:12
12	Gorka Bueno	00:44:13
13	Urko Cisneros	00:44:25
14	Axier Etxeberria	00:44:58
15	Iñigo Camacho	00:45:49
16	Dioni Agredano	00:46:00
17	Javier Soto	00:46:32
18	Patxi Nieto	00:48:53
19	Mikel Camacho	00:48:55
20	Javi Mayan	00:49:32
21	Oscar Sanchez	00:49:53
22	Iker Hernandez	00:49:54
23	Martxel Prego	00:50:31
24	Iker Cañedo	00:50:23
25	Unai Dieguez	00:51:49
26	Igor Olazagirre	00:51:47
27	Ismael Rodriguez	00:52:20
28	Josu Arregi	00:52:28
29	Antton Arruti	00:52:29
30	Javier Cabo	00:52:35



Unai Lizeaga, lehen urrietarra Lasarte-Oriako lasteketan.

31	Itziar Poza	00:52:59	3	Aitor Iturralde	00:42:52
32	Jesus Barbero	00:52:59	4	Gorka Pardavila	00:43:29
33	Enrique Miguel	00:53:22	5	Borja Granada	00:43:33
34	Peio Belaunzarán	00:53:26	6	Jon Labaka	00:43:49
35	Mariano Arnal	00:53:34	7	Igor Lizasoain	00:44:59
36	Juan Carlos	00:54:14	8	Vicente Benitez	00:47:12
37	Javier Gallo	00:54:15	9	Xabin Arzelus	00:47:18
38	Aitor Ugartemendia	00:54:56	10	Jon Iraola Martinez	00:51:57
39	Iñigo Berasain	00:55:08	11	Gaizka Mayoz	00:54:44
40	Dani Enriquez	00:56:30	12	Asier Zubillaga	00:54:58
41	Felipe Millan	00:57:54	13	Mari Martin	00:55:41
			14	Maitte Begiristain	00:55:42
			15	Almu Salas	00:55:41
			16	Uxue Salaberria	00:59:09
			17	Asier Mujika	01:01:44

Urnieta

1	Unai Lizeaga	00:37:13
2	Julen Gabirondo	00:41:32

BIZITZAREN HERENA EKIMENA



Axier Oiarzabal Txapartegi andoaindarrak 45 urte bete ditu, horietatik 15 kartzelan egin dituelarik. Pasa den udan haren babes taldeak iragarri bezala, ekitaldi sorta iragarri dute azarorako. Lehena hilaren 19an, Giza katea herrian barrena.

ANDOAINGO UDALA

Euskararen transmisioan lagungarri diren egitasmoak

Euskararen ahozko transmisioan, azterketa soziolinguistikoetan gurasoen artean erdaraz aritzeko joera nabarmena agertu izan da. Eta, aldiz, haurrak tartean daudenean euskararekiko sentsibiliza-

zioa areagotu egiten da. Andoaingo Udalak euskararen ahozko erabilera sustatzeko aukera zabala eskaintzen die herritarrei, guraso bakoitzaren egoera eta errealitatera egokitutakoa.



GURASOLAGUN
ESTHER AGIRRE

“Euskaraz kontu kontari aritzea, horixe da gure zeregina”

Esther sortzez azpeitiarra da, “han bizi nintzanean ez nuen gaztelania ezertarako erabiltzen. Alde handia sumatu nuen Andoainera etortzean. Ikastetxearen bitartez, Gurasolagun ekimenaren berri izan nuen duela bi ikasturte eta euskaraz trebatzeko laguntzaile izateko nire burua proposatu nuen. Kontu kontari aritzea, horixe da gure zeregina. Goizez geratzen ginen, haurrik gabe, eta kafea hartuz edota pasieran euskaraz hitz egiten genuen. Alboan izan ditudanentzat euskara erabiltzeko baliagarri izan den bezala, niretzat jende berria ezagutzeko aukera aparta izan da”.

IZAN ZAITEZ GURASOLAGUN

DEIALDIA ZABALIK DAGO

- **Norentzat:** HHko eta LHko gurasoentzat.
- **Ezaugarriak:** Adin bertuko umeak dituzten gurasoak biltzen saiatzen dira, astean arratsalde batez, gutxienez ordubetez, ikastetxeko patioan edota inguruko plazatxo batean, euskaraz ari daitezten.
- **Informazioa:** Udala: 943 300 831. AEK: 943 591 704.



GURASO ESKOLA
PILI SARRIEGI

“Haurra ikastetxean dagoen arratsaldeko tarte hori egokia da niretzat”

Pili sortzez donostiarra da eta han bizi zenean erdal munduan bizi zen, erabat. Haurra izatean, euskararen mundura hurbiltzea beharrezkoa iruditu zitzaion. Dagoeneko hirugarren ikasturtea da guraso eskolan dabilela. Astean bi egunez, berak eta beste guraso batzuk AEK-ko irakaslearekin hitzordua ipini dute: “Haurra ikastetxean dagoen arratsaldeko tarte hori egokia da niretzat. Probetxuzko bi ordu dira. Ikasten ari naizela nabaritzen ari naiz, eta haurraren hizketan aritzen ahalegintzen naiz. Haurrak, euskara ikastetxetik haratago doan hizkuntza dela ikustea nahi dut”.

HAS ZAITEZ ESKOLAK HARTZEN

DEIALDIA ZABALIK DAGO

- **Norentzat:** Guraso eta hezitzaileentzat.
- **Ezaugarriak:** Ikastetxean bertan edota gertuko leku batean burutuko dira klaseak. Astean bi egunetan, 14:40tik 16:20ra. Azaroan hasita eta guztira 80 ordu. Diru-laguntza eskatzeko aukera dago.
- **Informazioa:** Udala: 943 300 831. AEK: 943 591 704.



BIDAIDE
AINARA LOIARTE

“Tailerrak gutxieneko euskara maila duten gurasoei bideratuta daude”

Ainara andoainarra Mintzalagun egitasmoaren koordinatzailea da, eta berak egin ditu Bidaide egitasmoaren aurkezpen lanak: “Oinarrizko edo gutxieneko euskara maila duten gurasoei zuzenduta dago, hurrekin batera parte har dezaten. Bereziki, mintzalagun eta guraso eskolatakoei zuzendurik dago. Azaroaren 18an Karrikako Ludotekan hasita, sei jardueratan parte hartuko dute. Lehengo sukaldaritza begetarianoari buruzko tailerra izango da. Saioz saio ziguila bana jasoko dute, eta sei zigiluak lortzen dituzten artean ikasturte amaieran zozketa eta sari banaketa egingo dira”.

ETOR ZAITEZ TAILERRETARA

DEIALDIA ZABALIK DAGO

- **Norentzat:** Guraso eta haurrentzat.
- **Ezaugarriak:** Andoaingo Ludotekak ikasturtean zehar tailerrak antolatuko ditu, gurasoei zuzenduta. Betiere tailerrak hurrekin batera parte hartzeko egiten dira. Derrigorrezkoa izango da alde zuzeneko izena ematea.
- **Informazioa:** Udala: 943 300 831. Ludoteka: 943 300 208.

AUKERA GEHIAGO

AISA

Harrera-ikastaroen bidez, Euskal Herrian bizi diren etorkinek dituzten hizkuntza-premiei aurre egin nahi zaie, oso oinarrizko ezagutza bermatuz eta euskararekin duten harremana erraztuz. Ikasleen eguneroko bizimoduan oso hurbileko gaiei garrantzia ematen zaie: osasuna, familia, eskola.

Helburuen artean, ikasle etorkinek kalean aurkituko dituzten errotiluak eta kartelak ulertzeko gaitasuna lortzea da.

DEIALDIA ZABALIK DAGO

- **Norentzat:** Etorkinentzat.
- **Ezaugarriak:** Euskara ikasteko oinarri-oinarrizko ikastaroak, euskararekin harremanik izan ez duten etorkinei zuzendua.
- **Informazioa:** AEK: 943 591 704.

MOTIBAZIOA

Gurasoen artean motibazioa sustatzeko Andoaingo Udalak antolatzen dituen hitzaldiak dira. Adibidez, euskara ez dakiten gurasoentzat edo oso gutxi dakitenentzat Paula Casaresen hitzaldia antolatu zuten. Eta gauza bera guraso euskaldunentzat ere, Kike Amonarriren hitzaldiarekin. Saioak doakoak dira, eta horien berri prentsa, webgune eta sare sozialen bidez ematen dute.

INFORMAZIO GEHIAGO

Telefono zenbakia:
943 300 831
euskarazerbitzua@andoain.eus
Webgunea:
andoainarraeuskaraz.eus
Facebook:
andoainarraeuskaraz.euskaraz

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Udalak

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 4TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

- "Historia de una pasión": Azaroak 6: 19:30. Azaroak 7: 19:30, 22:00.
- "Cigüeñas", haurrentzat: Azaroak 5. 17:00. Euskaraz. Azaroak 6. 17:00.
- Datorren asteburuan: "La chica del tren".
- Dokumentala: "Newen mapuche". 19:00. 3 euro. Azaroak 9, asteazkena.

Sariketa

Andoain

- Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa, sari banaketa ekitaldia. 18:30. Ekitaldi aretoa. Azaroak 10, osteguna.

Azoka

Andoain, Goikoplaza

- Makaldegiko etxola berria ipini behar dutela eta, azoka denbora batez Goikoplazan egingo da.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- "Esku azpi begi" Estanis Comella, Maite Mugerza eta Damaris Pan artista gazteen eskutik. Irekiera ekitaldia: 19:00. Erakusketa gela. Azaroak 11, ostirala.

Musika

Andoain, Bastero

- The Young Fresh Fellows Seattle hiriko taldea zuzenean. 22:30. Auditorioa. 12 euro. Azaroak 5, larunbata.
- Joserra Senperena musikariaren kontzertua. 20:00. Ekitaldi aretoa. Azaroak 19, larunbata.

Antzerkia

Ereñotzu

- "Gabon Txirrita" ikuskizuna. Ereñotzuko frontoia. 19:30. Sarobe. 7 euro. Azaroak 5, larunbata.

Urnietan, Ludoteka

- "Kixote, Santxoren zorabioa" Markeliñeren eskutik. 17:30. Sarobe. Azaroak 6, igandea.

Andoain

- "Solitudes" Kulunkaren eskutik, hitzik gabeko maskaradun antzerkia. 21:30. Auditorioa. 12 euro. Azaroak 18, ostirala.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Gorospe. Urnietan: Urrutia, Hernani. Etxeberria 1. Florida auzoa. Azaroak 5, 6.
- Gauez: Urrutia, Hernani. Azaroak 5, 6.

Ekitaldia

Andoain, Sorabilla

- Mikel Goenaga apaiza gunearen irekiera ekitaldia. 11:30. Sorabilla. Azaroak 5, larunbata.

Dantza

Urnietan

- Aurrera Gure Ametsa Dantza Elkarteak dantzari eta dantzazale topaketa. 12:00-14:00. San Juan plaza. Azaroak 6, igandea.

Haurrak

Urnietan, Ludoteka

- Ipuin kontaketa: "Nire etxea zure etxea da", Maite Franko. Azaroak 10, osteguna. 17:30.

Gaztetxea

Andoain

- Musika: Yo Ciervo, Dukha. Azaroak 5, larunbata. 22:30.
- Antzerkia: "Requiem para Enriquez". Azaroak 6, igandea. 18:30.

Topaketa

Andoain, Zumea plaza

- Basherrri sareak antolatuta, egun osoan zehar babarrun txapelketa, kontsumo taldeen azoka, haur antzerkia. Azaroak 5, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ongi etorri **Irei!** Urriaren 17an Irei jaiozen. Ongi etorri mattia etxeko enparterez. Zein ongi zaintzen zaituen zure arrebak. Muxu potoloak. Zure etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 22an jaio zinen, **Madalen**. Muxu potoloak. Xabat, amatxo ta aita-txoaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aupa **Aitor!** Urriaren 31n, 7 urte bete zenituen aingerutxo horrek. Muxu handi handiak zuretzako. Ama, aita, Ibai eta aitona Arturo. Ongi pasa txapelkun!


URNIETA

ZORIONAK



Unaxek 6 urte bete zituen azaroaren 1ean. Zorionak eta muxu potoloak. Etxekoak.

ANDOAIN



ZORIONAK Azaroaren 2an Altzibar baserriko **Jexux eta Ane** ezkondu zirela 25 urte bete ziren. Zorionak!

URNIETA



ZORIONAK **Hodei** Alkorta 6 urte azaroaren 8an. Etxekoak. Aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK **Intza**, azaroaren 3an 7 urte. Mundial pasa, guk zurekin hala pasako dugulako. Muxuak laz-tana. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN Erraza da, eta dohainik. Email: diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537



Ikasgaia, berdintasuna

Urnietako Udalak herritar guztiei zuzenduriko hiru ikastaro antolatu ditu Saroben, berdintasuna lantzeko:

- Berdintasuna eta maskulinitasunak:** Gizon eta emakumeen arteko desberdintasun sozialak aztergai. Egunak: Azaroak 3, 10. Iraupena: 2 orduko saioak. Hizkuntza: Gaztelania. Hezitzailea: Gizonduz.
- Lengoiaren eta irudiaren erabilera ez sexista:** Erabil-

tzen dugun lengoiaren inguruko azterketa.

- Egunak: Azaroak 15, 22. Iraupena: 2 orduko saioak. Hizkuntza: Euskara. Hezitzailea: Emagin.
- Hezkidetzaren aisialdian:** Genero rola aztergai. Egunak: Azaroak 20, 27. Iraupena: 2 orduko saioak. Hizkuntza: Euskara. Hezitzailea: Emagin.

Informazioa:

jkortajarena@urnieta.eus

Noauaren KULTURALDIA 2016
Azaroaren 4tik 13ra

azaroak 4, OSTIRALA
BIDEK EMANALDIA
Noau! K.E.-k 20 urte!

azaroak 4, OSTIRALA
DANTZA
Orbeldi dantzan

azaroaren 4tik 13ra
ERAKUSKETA
Noau! K.E.-k 20 urte!
Bideo emanaldia, panelak.

azaroak 5, LARUNBATA
MUSIKA EMANALDIA
Komposatzen: Bidaia indimo bizi
Emakumeen laborerian sartze

azaroak 10, OSTEGUNA
HITZALDI SOLASALDIA
KABE Solasorokian

azaroak 11, OSTIRALA
KANTU-BERTSO AFARIA
Kantuz eta bertsotuz
bertsoak: Oria Alendi eta Joni Anzures

azaroak 12, LARUNBATA
ANTZEZLANA
Non gaude?

azaroak 13, IGANDEA
KONTZERTUA
Super Ondorika

USURBILLEN

noau